6.- *Hirigintza-planen antolamendu-zehaztapenak indarrean egongo dira harik eta planon berrikuspena edo aldaketa indarrean jarri arte.*

G.- Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 102. artikuluan hirigintza-planen berrikustea edo errebisioa garatzen du. Lehen hiru parrafoak zera adierazten dute:

1.- Hirigintza-planek ezarritako antolamendua eta, nolana ere, plan orokorren egiturazko antolamendua erabat berraztertzeke, beharrezkoa izango da antolamendu hori berrikustea. Antolamendua berrikusi beharra izango da, orobat, lurralde-plangintzak hiri-garapen berrietarako hala eskatzen duenean eta garapen berriek funtsezko eragina dutenean egiturazko antolamenduan.

2.- Berrikustea partziala izan daiteke, baldin eta berrikuste hori, behar bezala justifikatuta, planak antolatutako lurraldearen zati batera, edo planaren zehaztapan batzuetara –bi kasuetan, multzo homoginoa osatu behar dute–, edo bietara batera mugatzen bada.

3.- Hirigintza-planak kasu hauetan berrikusiko dira beti: planetan beretan ezarritako epeetan, planetan aurrikusitako balizkoak edo egoerak gertatzen direnean edo lurralde-antolamendurako tresnen zehaztapan lotesleek eskatzen dutenean.

H.- Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 103. artikuluan hirigintza-planen aldaketa garatzen du. Lehen lau parrafoak zera adierazten dute:

1.- Aurreko artikulua barruan sartzen ez den hirigintza-planen berrikuste oro egiteko, beharrezkoa izango da hirigintza-plan horiek aldatzea.

2.- Plan orokorrak zehaztapanak identifikatu eta berezi beharko ditu, baldin eta bere eduki propioaren barnekoak badira eta antolamendu xehatuko plangintzaren legeko funtzioari badagozkio, eta ez plan horrek lege honetan izendatuta daukanari.

3.- Izapideak egiteari dagokionez, plan orokorreko elementuen aldaketak bereizketa hori izango du kontuan, eta aldaketak eragindako zehaztapanak bere lerrun edo izaerari dagokien antolamendu-figurak dituen arauetara egokitu beharko zaizkie, 58. artikuluan ezarritakoaren arabera.

4.- Aldaketak edozein unetan egin ahal izango dira. Hala ere, plan orokorraren zehaztapan edo elementu propioen gainean egin behar direnean, ezin izango da aldaketarik izapidetu planak bere berrikuspenerako ezarritako epeak amaituz gero edo hartarako aurreikusitako balizkoak edo egoerak gertatuz gero, betiere berrikuspenei ekiteko erabakirik hartu ez baldin bada.

I.- Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 104. artikuluan hirigintza-planen aldaketa eta berrikuspeneraren prozedura garatzen du:

Hirigintza-planen zehaztapanak berrikusi eta zehaztapanetan edozein aldaketa egiteko, plan-mota berberaerabili beharko da, eta, gainera, zehaztapan horiek



onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da. Arau horretatik kanpo geratuko dira honako hauek:

a) Plan partzialek eta bereziek plan orokorrean jasotako antolamendu xehatuan eragin ditzaketan hobekuntzak eta aldaketak.

b) Dagokion planak xehetasun-azterketa bidez berariaz onar ditzakeen hobekuntzak eta aldaketak.

c) Plan orokorraren aldaketak –hautazkoa izango dute aurrerakinaren tramitazioa–.

d) Sektorekatze-planak edo bateragarritze-planak plan orokorrean ezarritako egiturazko antolamenduak egiten duen aldaketa.

J.- Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 105. artikuluan hirigintza-planek ezarritako antolamendua aldatzeko eta berrikusteko mugak zehazten ditu:

1.– Hirigintza-plan batek ezarritako antolamenduaren berrikuspen edo aldaketa guztiek konpentsazio-neurriak eduki beharko dituzte, baldin eta hirigintza-eraikigarritasuna handitzen edo zuzkidura publikoa ez den lursail baten erabileren intentsitatea areagotzen bada, xede publiko baten lurzoruaren desafekzioa onartzen bada edo 16. artikuluan aurreikusitako erabileretarako kalifikatutako lurzoruak deskalifikatzen badira. Neurri horiek, hain justu, honako helburu eta arauak izango dituzte:

a) Babestutako zuzkidurei eta lurzoruei dagokienez, behar den hiri-kalitatea gordetzen dela frogatzea.

b) Kalifikazioak ezarritako erabilpen babestuetara benetan iristeari dagokionez, udalerraren beharrianak eta ahalbideak kontuan hartzea, betiere lurralde-antolamendurako tresnen arabera.

c) Eta, nolana ere, antolamendurako gutxieneko legezko estandarrak modurik onenean beteko direla bermatzea.

2.– Etxebizitza-erabilerako hirigintza-eraikigarritasuna handitzen duten plan orokorren aldaketen kasuan, beharrezkoa izango da lurzoru gehiago aurreikustea berdegune eta espazio libreko zuzkidura publikoetarako izendatzeko. Horretarako gutxieneko proportzioa 78. eta 81 artikuluetan ezarritakoa izango da.

3.– Bereziki, aldatzen den plangintza orokorrak, aldaketaren eremuan bertan, aurreko paragrafoan ezarritako estandarra bermatzeko adinako zuzkidura eduki beharko du sistema orokorreko espazio libreei dagokienez, proposatutako aprobetxamendu-gehikuntza egin ondoren. Neurri hori materialki ezin bada bete edo

hura betetzea ez bada egokia aurreikusitako antolamendurako, zuzkidura hori osatu egin beharko da, plan orokorrean sistema orokorreko espazio libre modura kalifikatutako eremuak handituta, edo eremu gehiago sortuta kalifikazio berarekin eta tamaina egokiarekin, sortutako zuzkidura-falta eremu berri horien guztien artean konpentsatzeko.

4.- Gainera, aldaketak espazio librean tokiko sareko zuzkidura egokia ere bermatu beharko du jarduketaren eremuan bertan. Horretarako, espazio libreko 5,00 metro koadroko zuzkidura izango da, gutxienez, biztanleko, 78. artikuluan ezarritako arauari lotuz. Hiri-lurzoruan, ordea, paragrafo honetan ezarritako baldintza materialki ezin bada bete edo hura betetzea ez bada egokia aurreikusitako antolamendurako, onargarria izango da proposatutako hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntza, baldin eta espazio libre lokalen zuzkidura-soberakina, garapen berriak eragindako defizita konpentsatzeko adinakoa, duen eremu batean egiten bada planaren aldaketa.

5.- Bizitegi-erabilerako hirigintza-eraikigarritasuna handitzen duten plan orokorren aldaketen kasuan, justifikatu ahal izango dute, memorian, lehendik ere lurzoru-erreserba nahikoa badagoela aurreko plangintzan, 81. artikuluan eskatutako gutxieneko proportzioan bizitegi-zuzkiduretarako erabiltzeko.

6.- Hirigintza-antolamenduko planen aldaketek eutsi egingo diote partzela eta orubeen zuzkidura publikorako erabilpenari, baldin eta erabilpen hori berori bazuten lehenagotik. Hala ere, lurzoruari erabilpen ezberdina izendatu ahal izango zaio, gaiaren arabera administrazio eskudunak hartarako ez dela behar justifikatzen duen txostena emanda. Hala gertatuz gero, partzela eta orube horiek zuzkidura publikoen beste erabilpen batzuetarako izendatu ahal izango dira, besteak beste bizitegi-zuzkiduretarako, etxebizitza babestuetarako edo beste aprobetxamendu batzuetarako. Partzela eta orubeak etxebizitza babestuetarako edo beste aprobetxamendu batzuetarako baldin badira, erregelamendu bidez ezarritako konpentsazio-neurriak jasoko dituzte planen aldaketek.

7.- Udal-mugartearen egiturazko antolamenduan berdeguneetarako eta espazio libreetarako lehendik sartuta dauden lurzoruen kasuan, antolamendurako planen aldaketek lurzoru horiei eragiten baldin badiete, ezarritako konpentsazio-neurriez gainera, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen baimena behar izango da aldaketok behin betiko onespina jasotzeko; baimen hori ezinbestekoa izango da prozedura berariaz ebazteko. Aldaketa behin betiko onartzeko gehienezko epea etenda geratuko da baimena eskatu eta baimen hori jaso arte. Prozedura eten eta hiru hilabete geroago ebazpenik jakinarazi ez bada, behin betiko onespina ezetzi egin dela iritzi ahal izango zaio.

8.- Plangintza osorik edo zati batean berrikusteko orduan, artikuluko honetako 1. paragrafoan ezarritakomugapenei ez besteri kasu egin beharko zaie.



K.- Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 108. artikuluan parte hartzeko programa garatzen du:

Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerrriaren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu. Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

a) Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.

b) Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.

c) Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.

Zentzu berean, Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. eta 26. artikulua (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak sustatutakoak) xedatzen dituzte herritarren parte-hartzea lurralde- eta hirigintza-plangintza izapidetzean eta hiri-antolamenduko plan orokorra eta haren aurrerapena egitea eta onesteko prozedurari hasiera ematea, hurrenen hurren.

L.- Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an onartutako 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 18. artikuluan xedapen orokorrak arautzen ditu:

1.- Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteez modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua.

2.- Artikulu honetako lehen paragrafoan xedatutakoa betetzeko, euskal herri-administrazioen mende dauden sail, erakunde autonomo edo ente publikoek lege honetako 19. artikulutik 22.era bitartean ezarritakoari jarraitu behar diote. Nolanahi ere, foru- eta toki-erakundeek, beren eskumenez baliatuz eta beren arauetan dauden berezitasun formal eta materialak aplikatuz, artikuluetan ezarritakoa erakundeok dauzkaten antolakuntza- eta eginkizun-beharretara egokitu ahal izango dute.

3.- Generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzerakoan –legeko 19. artikulua– eta ezberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko neurriak ezartzerakoan –legeko 20. artikulua–, kontuan hartu behar da emakumeen eta gizonen

arteko ezberdintasunetan 3. artikuluko 1. paragrafoko azken tartekian adierazitako faktoreek daukaten eragina.

4.- Euskal herri-aginteez ez dute hizkera sexistak erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan

M.- Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an onartutako 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 19. artikuluan generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzeko irizpideak ezartzen ditu:

1.- Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.

2.- Eusko Jaurlaritzak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak proposatuta, arauak edo gidalerroak onetsi behar ditu, non adieraziko diren, batetik, zein izan behar diren aurreko paragrafoetan aipatzen den generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko erregelak, eta bestetik, zein administrazio-arau edo -egintza dauden aurretiazko ebaluazio hori eta ondoko artikuluetan jasotzen diren gainerako irizpideak egin behar izatetik salbuetsita.

N.- Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 109. artikuluan udal-plangintzako aholku-batzordearen egitekoak zehazten ditu:

1.- Udal-plangintzako aholku-batzordea, hain zuzen, aholkurako eta eztabaidarako organo lokal bat da, hirigintza-planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedurari dagokionez kontzertazio sozialerako funtzioak beteko dituen. Nahitaez eratu behar da plan orokorrak behin betiko onartzeko eskumena, berez edo eskuordetzan emanda, duten udalerrietan.

2.- Udalaren plangintza orokorra egiteko ardurak duten administrazioek egindako azterlan, egitarau, jarraibide eta jardunbideen berri izango du batzordeak, plangintza egiten laguntzeko, eta, nolana ere, txostena aurkeztuko du plan orokorraren idazketa teknikoak hasi eta gero. Hirigintza-antolamenduko tresna orori buruzko txostena eskatu eta ezagutu ahal izango du batzordeak, baita txostena berak egin ere.

3.- Aintzat hartzen dituen gaiak aztertzeke agiriaren bidez esku hartuko du batzordeak. Agirietan proposamenak edo aukerak aurkeztu ahal izango ditu, baina horiek ez dira izango lotesleak herri-administrazioentzat.



4.- Plangintza onartu behar duen administrazioari aurkeztu zaizkion baina plangintza behin betiko onartzeko ebazpenean aintzat hartu ez diren proposamen eta alternatibei dagokienez, zergatik onartu ez diren adierazi beharko da.

2015eko urriaren 30eko 7/2015eko Lurzoru eta Hiri Errehabilitazioko Legearen Testu Bateratuak 20-1 c) artikuluan, besteak beste, berresten du gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lurzoruaren erabilerarako kontuan hartu beharreko irizpide gisa.

O.- 2015eko urriaren 30eko 7/2015eko Lurzoru eta Hiri Errehabilitazioko Legearen Testu Bateratuak 22-4 artikuluan adierazten du iraunkortasun (sostenibildad) ekonomikoaren txostena edo memoria jaso beharko dutela eraldaketa urbanistikoa eragiten dituzten dokumentuek.

P.- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 27. artikuluan hirigintza-antolamenduko planak eta bestelako plangintza-tresnak onartzeko prozeduraren barnean, hasierako onarpenari dagokion zehaztapena garatzen du:

1.- Udalak hasiera batean onetsiko du plan orokorraren hasierako onespene-dokumentua eta jendaurrean jarriko du, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, berrogeita bost egun baliioduneko epean, iragarkia dagokion lurralde historikoaren aldizkari ofizialean argitaratzen denetik aurrera; horrez gain, udal-mugarterako egunkaririk zabalduenetako batean edo batzuetan argitaratuko du. Udalak, halaber, bere egoitza elektronikoan eta egokitzen jotzen dituen beste hedabide batzuetan ere argitaratuko du, informazioa emateko soilik. Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei ere emango zaie hasierako onespenearen berri, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten. bai eta, Arabako udalen kasuan, udalerriko administrazio-batzarrei ere.

2.- Jendaurrean jartzearekin batera, udalak hasierako onespene-dokumentua eta ingurumen-azterketa estrategikoa bidaliko dizkie alde zuzenetik kontsulta egin zaien eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei, aurreko apartatuan ezarritako epe berean txostenak eta egokitzen hartzen dituzten alegazioak egin ditzaten.

Q.- Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, 31. artikuluan hirigintza-antolamenduko planek gutxienez bere baitan izan behar dituzten dokumentuak zehazten ditu.

R.- Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 100. artikuluan katalogoak izapidetu eta onartzearen inguruko puntua garatzen du:

1.- Katalogoak onartzeko edo aldatzeko, toki-erregimenari buruzko araudian udal-ordenantzarako ezartzen den prozedura erabiliko da, salbu eta plan orokorrarekin batera izapidetu eta onartzen badira. Jendaurrean jartzeko epearen barruan, irizpena eskatuko zaie foru-aldundian eta Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen alorreko eskumena duten sailei.

2.- Ondasun katalogatuen babeserako neurriak jasotzen dituzten planei dagokienez, onartzen eta indarrean jartzen direnean, eguneratu egin beharko da katalogoa.

S.- Abenduaren 23ko 17/2008 Legeak, Nekazal Nekazal eta Elikadura Politikaren ingurukoak, 16.2 artikuluan adierazten du balio handiko nekazal lurren inguruan burutu nahi den edozein hirigintza ekimenak Aldundiko eskumeneko organoaren txostena beharko duela, Lurralde Antolamenduko batzordeak bere txostena eman aurretik (behin betikoa ematen duen aurretik). Halaber, aipatutako Legeak Bukaerako Bigarren Xedapenean, ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan, 97 bis artikuluan gehitzen du, aipatutako edukiarekin.

P.- Maiatzaren 9ko 9/2014 Legeak, Telekomunikazioetako Lege Orokorrak, 35-2 artikuluan adierazten du hirigintza planifikazioko dokumentuek onartu, errebisatu edo aldatu aurretik Estatuko Industria, Energia eta Turismo Ministeritzaren aldeko txostena izan beharko dutela. Txostena hiru hilabeteko epean emango du.

Q.- Ekainaren 23ko 1/2006 Uraren Legeak 7. artikuluan Uraren Euskal Agentziak dituen enginkizunak zehazten ditu. Hauen artean k) eta l) ataletan jasotakoak hurrengoak dira:

k) Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta udalplangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera. Bi hilabeteko epean eman eta jakinarazten ez bada, dagokion plan edo araua ontzat ematen dela joko da.

l) Hasierako onarpena baino lehen, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeek xedatzen dutena gorabehera. Bi hilabeteko epean eman eta jakinarazten ez bada, dagokion plan edo araua ontzat ematen dela joko da.

R.- Ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretua Araudiak, Gipuzkoako Errepide eta bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzen duenak, 94. artikuluan, hirigintzako plan eta agirien inguruan eta lurralde historikoko errepideetan eragina duten heinean Diputazioak eman behar duen derrigorrezko txostenari buruzko azalpena jasotzen du:



1. *Antolaketa planak, arauak, ordenantzak, hiri lurra mugatzeko proiektuak, xehetasun estudioak edota, halakorik balego, horien aurrerapenak eta, era berean, hiritartze proiektuak eta bestelako hirigintzako agiriak onartu aurretik, errepidearen trazatu edo ezaugarriak aldatzen badituzte, sarbide berriak ireki behar badira edota babesguneetako mugaketak afektatzen badituzte, bide horren jabea den administrazioaren aginduzko informea eskatu behar da.*

2. *Hirigintzako plan eta agiri horiek onartzeko jardunbidean, hasierako onarpena emateko eskumena duen administrazioak eskatuko du informea hasierako onarpen hori eman eta berehala eta, dena dela, behin-behineko onarpena eman aurretik, plan orokor eta antolaketa arauen kasuetan informea eskatu eta bi hilabete iragan aurretik ez delarik emango eta gainerako kasuetan hilabetea iragan aurretik.*

Onartzeko jardunbidean behin-behineko onarpenik aurreikusten ez denean, informea behin betiko onarpenaren aurretik eskatu behar da, informea eskatu eta hilabete iragan aurretik ez delarik emango.

3. *Administrazioak emango duen informea, errepideekin, bertako segurtasunarekin eta zirkulazio beharrek zirikusia duten alderdiei buruzkoa bakarrik izango dena, derrigorrez bete beharrekoa izango da arau honetako eta aplikagarri diren gainerako arau teknikoetako zehaztapenak betez emango diren agindu guztietan. Errepide berri edo saihebidetekin zirikusia duten aurreikuspenak direnean, informea derrigorrezkoa izateko, jarduketa horiek behar bezala onartutako plan edo proiektuetan oinarrituta egon behar dute.*

S.- 2003ko uztailaren 22ko 183/2003 DEKRETUAK, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duenak, 17. eta 18. artikuluetan ingurumenaren gaineko eraginari buruzko alde aurreko txostenaren inguruko zehaztapenak ematen dituzte:

17. artikulua:

1.- *Dekretu honen II. Kapituluaren ezarritakoa bete beharri kalterik eragin gabe, plana lantzeaz arduratzen den organoak ingurumenaren gaineko eraginaren alde aurreko txostena eskatuko dio, irizpide eta irtenbide orokorrei buruzko erabakia hartu aurretik, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organuari edo Lurralde Historikoetako foru-organuari, eta eskaerarekin batera planaren aurrerapena edo lehen dokumentua eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa inguruko dizkio.*

2.- *Irizpide eta irtenbide orokorrei buruzko erabakia hartzea aurreikusita ez dagoenean, plana izapidetzea dagokion organoak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko alde aurreko txostena egingo du, planaren hasierako onarpenaren aurretik.*

18. artikulua:

1.- Dagokion organoak ingurumenaren gaineko eraginari buruzko alde aurreko txostena igorriko du bi hilabeteko epean, aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.- Ezarritako epea amaitzen denean alde aurreko txostena husteari ekin ez bazaio, prozedurarekin aurrera jarraitu ahal izango da.

T.- Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 6. artikuluan ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta eta sinplifikatuaren artean bereizten du eta kasu bakoitzean lerrotatzen diren kasuen zehaztapena egiten du.

U.- Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 29. artikuluan ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren izapideari hasiera emateko urratsak zehazten ditu. Modu berean lege bereko 45. artikulua aurkeztu beharreko dokumentuak finkatzen ditu.

V.- Urriaren 30eko 7/2015eko Lurzoru eta Hiri Errehabilitazioko Legearen Testu Bateratuak 25.3 artikuluan eta Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 5.3 artikuluan adierazten du jarraian zehazten den edukiko egikaritze-laburpen bat jarri beharko dela jendaurrean:

a) Proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena zer eremutan aldatzen duen zedarriztatzea, kokalekuaren plano bat emanaz eta aldaketaren norainokoa adieraziz. Egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko irudia konparatzeko aukera emango duten informazio grafikoko tresnak eta toponimiaren erreferentzia ere sartuko dira.

b) Hala badagokio, hirigintza-antolamendua edo egikaritzeko prozedurak eteten diren eremuak, eta etendura horren iraupena.

W.- Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen legediak, apirillean 21eko 11/1999 Legeak eragindako aldaketaren ondorioz, eduki berri bat ematen dio 22. artikuluari (Udalbatzako eskumenei). Honenbestez, c) atalean adierazten du Udalbatzaren eskumena izango dela, besteak beste, planeamendu orokorrari hasiera eta amaiera ematen dion udal erabakia. Bestalde 21. artikulua adierazten du Alkatearen eskumena izango dela Udalbatzari ez egotzitako planeamendu orokorraren garapenean emandako dokumentuen onarpena.

X.- Aipatutako Lege aldaketak eragina izango du baita ere gehiengo berezia eskatzen den akordioetarako. Honenbestez, gaiari dagokionean, 47.3 i) artikulua adierazten du gehiengo nagusia beharko dutela planeamendu orokorraren onarpenerako onartu behar diren akordioetan.



Y.- Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoak, lehen xedapen gehigarrian adierazten du:

Estandarrak betetzeko, hirigintza-plangintzaren behin betiko onarpenerako eskumena finkatzeko, eta dagokion udalerriko herrigunearen mende jartzen diren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen gainerako zehaztapenatarako, udal-biztanleriaren zenbaketa zehaztapen horiek jasoko dituen dokumentua hasiera batean onartzen denean egingo da, eta udalaren errolda-zerbitzuak ziurtatutako biztanleriaren arabera egiaztatuko da.

KONKLUSIOA

Aipatutako aurrekariak eta zuzenbide arrazoiak aintzat hartuta, eskumena duen organoa Udal Batzarra izanik, honek hurrengo edukia izan behar duen erabakia hartu beharko luke, txosten-egilearen aburuz:

1.- Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketari (dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera) hasierako onarpena ematea.

2.- Hasierako onarpena eman zaion Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren dokumentua (dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera), -urriaren 30eko 7/2015eko Lurzoru eta Hiri Errehabilitazioko Legearen Testu Bateratuak 25.3 artikuluan xedatzen duen laburpen ejkutiboarekin batera- berrogeita bost egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Halaber, lurraldean hedadura gehien duen egunkaririk zabalduenetako batean edo batzuetan argitaratuko du eta modu berean Udaleko egoitza elektronikoan ere argitaratuko du, informazioa emateko soilik.

3.- 2006ko ekainaren 30ean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 85. artikuluan adierazten duen moduan, aldaketak eragina duen eremuetako udal baimenak suspenditu edo eten egingo dira Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Bigarren Aldaketaren dokumentuak behin betiko onarpena jasotzen duen arte edo gehienez bi urteko epeaz, salbu eta honako jarduketak hauekiko: A-40a arean, P-4.2 partzelan aurreikusitako eraikinari buruz indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Bereziak xedatutakoa aldatzen ez duten jarduketetan; eta A-40b arean, partzeletako edo lokalak berritzeko jarduketetan baldin eta gaur egungo erabilera aldatzen ez bada.

4.- Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei hasierako onarpena eman zaion Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren dokumentua, erabakiarekin batera, jakinaraztea, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten..

a.- Uraren Euskal Agentzia.

b.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentua.

- c.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Lurralde Orokako zuzendaritza
- d.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Ondare zuzendaritza.
- e.- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondare zuzendaritza.
- f.- Estatuko Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministeritza.

Besterik gabe, aurrez azaldutakoarekin bat etorritz, behean sinatzen dut, Bergaran, bi mila eta hogeiko azaroaren hamazazpian.



Izpta: Juan Inazio Galdos Larrea

HIRIGINTZAKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO
TEKNIKARIA



EGINBIDEA: Erregimen Lokaleko lege-xedapenak jasotzen dituen Textu Bateratuaren 54.1 b) artikulua eta Udal-Elkarteetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Lokaleko Araudiaren 173.1 b) artikulua adierazitakoaren arabera, udaleko Hirigintza Administrazio Orokorreko Teknikariaren txostenarekin bat natorrela, adierazteko.

Bergaran, 2020ko azaroaren 17an

IDAZKARIA



HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN
BIGARREN ALDAKETARI
HASIERAKO ONARPENA
LURRALDEKO IRIZPENA



Lurraldea Batzorde Informatzaileak, 2020ko azaroaren 17an egindako bileran, beste batzuen artean, hurrengo irizpena eman du:

Aurrekariak:

Udalbatzak 2016ko azaroaren 28an erabaki zuen Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketa egiteko aholkularitza eta lankidetzaren teknikoaren adjudikazioa Xabier Yeregi Aramendi udal-arkitektoari adjudikatzea 19.560 eurotan -BEZ kanpo-.

Udalbatzak 2016ko azaroaren 28an erabaki zuen Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren dokumentuaren eta zarata-azterlanaren idazketa egiteko lana "Ekolur Asesoria Ambiental S.L.L." enpresari adjudikazioa 7.770 eurotan -BEZ kanpo- egitea (506/16 esp.).

Alkateak 2019ko otsailaren 28an emandako Dekretu baten bidez erabaki zuen Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren dokumentuaren eta zarata-azterlanaren idazketaren baitan zarata azterketa egiteko lana "Ekolur Asesoria Ambiental S.L.L." enpresari adjudikazioa 3.267 eurotan -BEZ barne- egitea.

Begarako Udalak, 2019ko abenduaren 3ko udal erregistro irteerarekin, igorri zituen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen sailburuordetzara Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren dokumentuaren zirriborroa eta horri dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoa (dagokion formulario osatuarekin batera). Horrenbestez, eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordetzari aipatutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko (506/16 esp.).

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen sailburuordetzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2020ko uztailaren 3an emandako ebazpenaren bidez Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa eman du (txostenean garatzen den terminoetan).

Ekainaren 30eko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legaren 108. artikuluan ezarritakoa betez, Alkateak 2020ko uztailaren 23an emandako Dekretu baten bidez Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldaketari buruzko parte hartzeko programa onartzea ebatzi zuen. Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua dioena betez. Aipatutako parte hartzeko programa 2020ko abuztuaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Halaber, Bergarako Udaleko web orrian zintzilikatu zen.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen sailburuordetzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2020ko uztailaren 3an emandako ebazpenaren A-50 arearen inguruan azaldutako baldintza (txostenaren 4. orrian zehaztua), Udalak lur-jabearekin argitu ondoren, A-50 Arearen handitzea Bergarako Hiri Antolamenduko Plan



**Bergarako
Udala**

Orokorren bigarren aldaketaren dokumentuaren baitan jasotzea erabaki du.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketa honen baitan hurrengo eremuetako aldaketak jasotzen dira:

a.- A-40a Area (Ernai kalea), A-17 Areako (Artzamendi kalea) 17.1 H.E.U. Hirigintzako Exekuzio-Unitatea eta Mekolaldeko Espazio Libreen Sistema Orokorra, A-40a Areako hirigintza eraikigarritasuna handitzeari lotutakoa; b.- A-40b Area (Hirigintza Fitxaren aldaketa puntuala); c.- A-11 Areako (San Antonio) 11.1 H.E.U. Exekuzio-Unitatea; d.- Hirigune Historikoaren eremuaren muga aldatzea proposatzen da, Errekalde jauregiko lorategiko lur guztiak barnean hartzeko; e.- A-39 Area (39.3 E.U. Unitatearen eta 39.4 E.U. Unitateen arteko muga aldatzea); f.- A-57 Area (lurzati baten desklasifikazioa); g.- A-50 area (Askarruntz) 2.990 m² handitzea; h.- Idurio kobazuloa. Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko katalogoan sartzea.

Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren hasierako onarpenaren aurretik, Bergarako Udalak (2020ko uztailaren 29an) Estatuko Garraioetako, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministeritzako Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari zuzendu zitzaion aginduzkoa den txosten loteslea eman dezan, abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuak, interes orokorreko aireportuak eta dagozkien zerbitzuguneak antolatzeari buruzkoak, bigarren Xedapen Gehigarrian dioenari jarraiki eta abenduaren 30eko 13/1996 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarteko alorreko neurriei buruzkoak, 166. artikuluan xedatzen duena betez.

2020ko irailaren 24ean hizkuntz inpaktuaren beharra aztertzeko irismen dokumentua egin zuten Udaleko euskara zerbitzuak, udal arkitekto zerbitzuburuak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMAko) teknikariak eta Udaleko Euskarako zerbitzuburuak. Bertan hizkuntz inpaktuko azterlanik egin behar ez zela irten zen.

Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldaketari buruzko parte hartzeko onartutako programaren haritik, herritarrei irekitako bilera informatiboa egin da 2020ko azaroaren 3an.

Estatuko Garraioetako, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministeritzako Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak, 2020ko azaroaren 4ko udal erregistro sarrerarekin, Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren hasierako onarpeneko espedientearen aldeko txostena aurkeztu zuen.

2020ko azaroaren 10ean udal plangintzako Aholku Batzordeko bilera egin zen; non, besteak beste, Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldaketako dokumentuaren aurkezpena egin zuen arkitekto dokumentu-egilerak eta hasierako onarpenerako aurkeztutako dokumentua ontzat eman zuen, proposamen eta alternatiba berezirik aurkeztu gabe.

Udal arkitekto zerbitzuburuaren eta hirigintzako administrazio orokorreko teknikariaren txostenei jarraituz Lurraldeako batzorde informatzaileak hurrengo irizpena eman du, aho batez:



**Bergarako
Udala**

Erabaki proposamena:

- 1.- Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketari (dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera) hasierako onarpena ematea.
- 2.- Hasierako onarpena eman zaion Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketaren dokumentua (dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera) -urriaren 30eko 7/2015eko Lurzoru eta Hiri Errehabilitazioko Legearen Testu Bateratuak 25.3 artikuluan xedatzen duen laburpen ejekutiboarekin batera- berrogeita bost egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Halaber, lurraldean hedadura gehien duen egunkaririk zabalduenetako batean edo batzuetan argitaratuko du eta modu berean Udaleko egoitza elektronikoan ere argitaratuko du, informazioa emateko soilik.
- 3.- 2006ko ekainaren 30ean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 85. artikuluan adierazten duen moduan, aldaketak eragina duen eremuetako udal baimenak suspenditu edo eten egingo dira Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Bigarren Aldaketaren dokumentuak behin betiko onarpena jasotzen duen arte edo gehienez bi urteko epeaz, salbu eta honako jarduketa hauekiko: A-40a arean, P-4.2 partzelan aurreikusitako eraikinari buruz indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Bereziak xedatutakoa aldatzen ez duten jarduketetan; eta A-40b arean, partzeletako edo lokalak berritzeko jarduketetan baldin eta gaur egungo erabilera aldatzen ez bada.
- 4.- Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei hasierako onarpena eman zaion Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketaren dokumentua, erabakiarekin batera, jakinaraztea, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten.

Bergara, 2020ko azaroaren 18a

LURRALDEAKO BATZORDEBURUA
Juan Luis Gonzalez



HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN

BIGARREN ALDAKETARI

HASIERAKO ONARPENA

ONARPENAREN ZIURTAGIRIA

M^a CONCEPCION UGALDE IZETA Bergarako Udaleko Idazkariak

EGIAZTATZEN DU: Udalbatzak 2020ko azaroaren 30ean egindako ohiko bilkuran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuela:

“Udalbatzak 2016ko azaroaren 28an erabaki zuen Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketa egiteko aholkularitza eta lankidetzaren teknikoaren adjudikazioa Xabier Yeregi Aramendi udal-arkitektoari adjudikatzea 19.560 eurotan -BEZ kanpo-.

Udalbatzak 2016ko azaroaren 28an erabaki zuen Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren dokumentuaren eta zarata-azterlanaren idazketa egiteko lana “Ekolur Asesoría Ambiental S.L.L.” enpresari adjudikazioa 7.770 eurotan –BEZ kanpo- egitea (506/16 esp.).

Alkateak 2019ko otsailaren 28an emandako Dekretu baten bidez erabaki zuen Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren dokumentuaren eta zarata-azterlanaren idazketaren baitan zarata azterketa egiteko lana “Ekolur Asesoría Ambiental S.L.L.” enpresari adjudikazioa 3.267 eurotan –BEZ barne- egitea.

Begarako Udalak, 2019ko abenduaren 3ko udal erregistro irteerarekin, igorri zituen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen sailburuordetzara Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketaren dokumentuaren zirriborroa eta horri dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoa (dagokion formulario osatuarekin batera). Horrenbestez, eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordetzari aipatutako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua hasteko (506/16 esp.).

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen sailburuordetzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2020ko uztailaren 3an emandako ebazpenaren bidez Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketaren ingurumen-txosten estrategikoa eman du (txostenean garatzen den terminoetan).

Ekainaren 30eko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legaren 108. artikuluan ezarritakoa betez, Alkateak 2020ko uztailaren 23an emandako Dekretu baten bidez Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldaketari buruzko parte hartzeko programa onartzea ebatzi zuen. Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua dioena betez. Aipatutako parte hartzeko programa 2020ko abuztuaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Halaber, Bergarako Udaleko web orrian zintzilikatu zen.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen sailburuordetzako Ingurumen Administrazioaren zuzendariak 2020ko uztailaren 3an emandako ebazpenean A-50 arearen inguruan azaldutako baldintza (txostenaren 4. orrian zehaztua), Udalak lur-jabearekin argitu ondoren, A-50 Arearen handitzea Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketaren dokumentuaren baitan jasotzea erabaki du.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketa honen baitan hurrengo eremuetako aldaketak jasotzen dira:

a.- A-40a Area (Ernai kalea), A-17 Areako (Artzamendi kalea) 17.1 H.E.U. Hirigintzako Exekuzio-Unitatea eta Mekolaldeko Espazio Librean Sistema Orokorra, A-40a Areako hirigintza eraikigarritasuna handitzeari lotutakoa; b.- A-40b Area (Hirigintza Fitxaren aldaketa puntuala); c.- A-11 Areako (San Antonio) 11.1 H.E.U. Exekuzio-Unitatea; d.- Hirigune Historikoaren eremuaren muga aldatzea proposatzen da, Errekalde jauregiko lorategiko lur guztiak barnean hartzeko; e.- A-39 Area (39.3 E.U. Unitatearen eta 39.4 E.U. Unitateen arteko muga aldatzea); f.- A-57 Area (lurzati baten desklasifikazioa); g.- A-50 area (Askarruntz) 2.990 m² handitzea; h.- Idurio kobazuloa Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko katalogoan sartzea.

Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren hasierako onarpenaren aurretik, Bergarako Udalak (2020ko uztailaren 29an) Estatuko Garraioetako, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari zuzendu zitzaion aginduzkoa den txosten loteslea eman dezan, abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuak, interes orokorreko aireportuak eta dagozkien zerbitzuguneak antolatzeari buruzkoak, bigarren Xedapen Gehigarrian dioenari jarraiki eta abenduaren 30eko 13/1996 Legeak, Zerga, Administrazio eta Gizarteko alorreko neurriei buruzkoak, 166. artikuluan xedatzen duena betez.

2020ko irailaren 24an hizkuntz inaktuaren azterlanaren beharra aztertzeko irismen dokumentua egin zuten Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak, udal arkitekto zerbitzuburuak, Udallerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMAko) teknikariak eta Udaleko Euskarako batzordeburuak. Bertan hizkuntz inaktuaren azterlanik ez zela egin behar irten zen.

Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldaketari buruzko parte hartzeko onartutako programaren haritik, herritarrei irekitako bilera informatiboa egin da 2020ko azaroaren 3an.

Estatuko Garraioetako, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak, 2020ko azaroaren 4ko udal erregistro sarrerarekin, Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren hasierako onarpeneko espedientearen aldeko txostena aurkeztu zuen.

2020ko azaroaren 10ean udal plangintzako Aholku Batzordeko bilera egin zen; non, besteak beste, Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko bigarren aldaketako dokumentuaren aurkezpena egin zuen arkitekto dokumentu-egileak, eta hasierako onarpenerako aurkeztutako dokumentua ontzat eman zuen Aholku Batzordeak, proposamen eta alternatiba berezirik aurkeztu gabe.

Udal arkitekto zerbitzuburuaren eta hirigintzako administrazio orokorreko teknikariaren txostenei eta Lurralde Batzordearen proposamenari jarraituz, Udalbatza osatzen duten 17 udalkideek, aho batez, honako hau erabaki dute:

- 1.- Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketari (dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera) hasierako onarpena ematea.
- 2.- Hasierako onarpena eman zaion Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren bigarren aldaketaren dokumentua (dagokion ingurumen-dokumentu estrategikoarekin batera) -urriaren 30eko 7/2015eko Lurzoru eta Hiri Errehabilitazioko Legearen Testu Bateratuak 25.3 artikuluan xedatzen duen laburpen exekutiboarekin batera- berrogeita bost egun balioduneko epean jendaurrean jartzea, Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Halaber, lurraldean hedadura gehien duen egunkaririk zabalduenetako batean edo batzuetan argitaratuko du eta modu berean Udaleko egoitza elektronikoan ere argitaratuko du, informazioa emateko soilik.
- 3.- 2006ko ekainaren 30ean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 85. artikuluan adierazten duen moduan, aldaketak eragina duen eremuetako udal baimenak suspenditu edo eten egingo dira Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Bigarren Aldaketaren dokumentuak behin betiko onarpena jasotzen duen arte edo gehienez bi urteko epeaz, salbu eta honako jarduketak hauekiko: A-40a arean, P-4.2 partzelan aurreikusitako eraikinari buruz indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Bereziak xedatutakoa aldatzen ez duten jarduketetan; eta A-40b arean, partzeletako edo lokalak berritzeko jarduketetan baldin eta gaur egungo erabilera aldatzen ez bada.



Begarako
Udala

4.- Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei hasierako onarpena eman zaion Bergarako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren bigarren aldaketaren dokumentua, erabakiarekin batera, jakinaraztea, ezagutu dezaten eta txostena egin dezaten.”

Eta horrela jasota gera dadin, luzatzen du egiaztagiri hau, Bergaran, 2020ko abenduaren 10ean.



**CD (PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETAREN
DOKUMENTUA ETA INGURUMEN-DOKUMENTU
ESTRATEGIKOA)**

